

Azkorrikoak

Itxaro Borda

Mattinali



*Jo soc l'altra.
Tu ets jo mateixa
Aquella part de mi
Que se'm revolta*

Maria Mercé Marçal

Harria, lorea bezain arros,
Behatz pean latz dabil
Bizitzaren antzera.
Ilargi beteko gauetan
Azaleko mika ezpalak
Zilar bihurtzen zaizkio:
Harria, lorea bezain arros,
Esku ahurrean datxikat
Zure hatsaren lurrina
Balitza bezala.

*Ez dakit zer den zoriona,
Eta agian ez dut jakin nahi ere,
Ez dakit zer den zoriona
Baina haizea, agurra, euria, musua,
Urratsa, errautsa eta argi-aurka
Zorion deituko nituzke
Ausartzen banintz.*

Maite zaitut
Nor zaren asmatu gabe.
Golde.
Maite zaitut
Nor naizen oraindik
Ikasi gabe.
Uholde.

I

Appassionata di marce in montagna,
Iparla walk, 2005

La pietra, rosa come il fiore,
Scorre ruvida sotto le mie dita
Somigliante alla vita.
Nelle notti di luna piena
I suoi scintillii di mica
Si trasformano in argento:
Tengo la pietra, rosa come il fiore,
Nella mano quasi fosse la nuvola
Del tuo respiro.

*Non so cos'è l'allegria
E forse non lo saprò mai,
Non so cos'è l'allegria
Ma se osassi
Chiamerei così il vento, l'addio,
La pioggia, il bacio, il passo,
La polvere e il controluce*

Ti amo
Senza immaginare chi sei.
Aratro.
Ti amo
Senza ancora sapere
Chi sono.
Tempesta.

II NAXOS

Emazte desertatu baten
Gorputzaren aztarna somatzen du hondartzan
Eta barneko harramantzak dio:
Etengabeko bizitza hau bakarrik zeharkatu dut
Nehork ez nau maitatu
Eta inor ez da ohartu gau metalikoaren altzairuzko
Manuen astunak leherturik genbiltzela,
Besteen moldean
Nik ere maitatua izan nahi nuela.
Harramantzak darrai, lelo:
Etengabeko bizitza hau bakarrik zeharkatu dut
Eta ez dut ulertzen nola pasatu naizen
Zure errealitatearen
Hegitik.

II NAXOS

Innamorata della Grecia
e dei suoi miti psicomparatori, 2002

Sulla spiaggia, lei indovina
Le tracce di un corpo di donna che non c'è più
E il suo tumulto interiore dice:
Ho attraversato sola questa vita interminabile
Nessuno mi ha amato
E nessuno si è reso conto, mentre avanziamo
Schiacciati dai mostri d'acciaio della notte metallica
Che anch'io, come gli altri,
 Volevo essere amata.
Il tumulto cresce, ripetitivo:
Ho attraversato questa vita interminabile
E non capisco come sono passata
accanto
 alla vostra realtà.

III

Indiferentzia deitzen du.
Nortasunarekiko distantzia likidoa.
 Dorreak erori dira,
 Behialako maitaleak bezala
Arrazoirik eman beharrik gabe
 Adiskideak urrundu zaizkio,
Urki hosto ikaratiak
 Larrazkena aitzin
 Eihartu direlarik.
Angeluko itsas ertzan datza:
Apurra gal beldurrez,
 Sortuz geroztik
 Isilik nago.
Ez dut plazerik ukan
Eta jende gisa
 Uhertu naiz.
Idazten baizik ez dakiela dio:
Inperadoreek gaztigatu
 Tribua kide herbalen
Mamuak, damuak eta doluak
Izkiriatzea izan da
 Neure hitzen
 Destinoa.
 Eta goibela dariola
Itsas belar malguk harkaitzak nola,
Tenpesta gauetan
 Ingumak besarkatzen ditu:
 Zure kemena
 Kalipu bekio.

III

Un umano che fa innervosire tutti, 2002

La chiamano indifferenza.
Distanza liquida con l'identità.
 Le torri sono cadute,
 I suoi amici si sono allontanati
Senza dare spiegazioni
Come altre volte le sue amanti,
Quando le foglie tremule
 Della betulla avvizziscono
 Prima dell'autunno:
Per paura di perdere ciò che mi resta
 Taccio
 Da quando sono nata.
Non ho conosciuto alcun piacere
E sono diventata trasparente
 Come essere umano.
Lei dice di saper solo scrivere:
Il destino delle mie parole
sarà stato quello di annotare i dispiaceri,
i rimpianti e i mostri
 degli indeboliti membri della mia tribù
puniti dagli imperatori.
 E quando la tristezza l'assale,
Come alghe molli gli scogli,
Lei bacia i fantasmi
 Nelle notti di tempesta:
 Che la tua energia possa
 Essere per lei una forza.

IV

Mirabellgartenetik Salzburgeko gaztelu zurbaila
Ikusten dut : badakit maita ez nazakezula

Kleine Dichterin bat baizik

Ez naizelako.

Hitzak arinegi dabilzkit.

Trenak, xake partida zibernetikoak, musu

Ebatsiak, doluak, greko zahar ikasketak

Eta ni munduan bezain arrotz diren

Mintzairen oiharrak

Zaizkit gustatzen.

Parkeko zuhaitz eiharrak dauzkat begimen,

Txinatar turisten artetik noa

Wolfgang Amadeus Mozarten etxeraino.

Borreroaren deiari gor natzaio:

Lubakirik ez dago nigan,

Gerlara deitzen ninduten

Jainko eta idoloak behin betiko

Haizatu ditut izpiritutik.

Dagoeneko argizirrinta dut otoizten,

Zubien urrikia eskatzen,

Kuia-saldaren beroa, ardo zuriaren

Miserikordia, Naufrago ekidinezin bat

Eta Traklen ilunbar pairatuen

Holtz artea.

Badakit ez nazakezula maita

Zure sakontasun urduriaren hondotik.

Uhinek astintzen duten

Uharte soila naizelako,

IV

Autoritratto a Salisburgo, eyes wide shut, 2003

Vedo lo smorto castello di Salisburgo dopo
Mirabellgarten: so che non puoi

Amarmi perché non sono che una
Kleine Dichterin.

Le mie parole sono troppo frivole.

I treni, le partite di scacchi cibernetiche,
I baci rubati, i rimpianti, le lezioni
Di greco antico e l'eco di lingue
Straniere quanto me al mondo

Mi piacciono.

Di fronte ai miei occhi gli alberi spogli del parco,
Cammino tra i turisti cinesi
In direzione della casa di Wolfgang Amadeus Mozart.
Resto sorda al richiamo del boia:

In me non ci sono trincee,

Ho scacciato dal mio spirito, per sempre,
Gli dei e gli idoli
Che mi incitavano alla guerra.

Da allora e ancora prego l'aurora,

Imploro la compassione dei ponti,

Il calore di una zuppa di zucca,
La misericordia del vino bianco,
*Il naufragio** inevitabile

E le profonde gole

Dei dolenti crepuscoli di Trakl.

So che non puoi amarmi

Dal fondo della tua profondità inquieta.

Non sono che un'isola

Battuta dalle onde,

Lurraren etengabeko higamenaren
Bilakaeraz dirauen
Kleine Dichterin bat naiz:
Horrela nehork ez nazake maita.

Una *kleine Dichterin* che persevera
Accettando il destino dell'incessante logorio
Della terra:
Per questo, nessuno può amarmi.

*titolo di un romanzo di Thomas Bernhard

V

Beldurrak eragin neure amets hatsanga zureari uztartu zenean, azken hatsa eman zuen bizitza tematsuak. *Ni Naiz* herabea ahoskatzen saiatu bezain laster, *Ni Nintzen* haren oihartzunak oinazetan zaplastatu ninduen. Elea bera doluminetan sortu zen:

intzuten gitxia ama?

Eta erizainak erran zuen:

ez gitizü entzüten...

Bapatean, lainoek tapatu zerua zeharkatu zuten kurloek. Oroimen bustiaren suaren itxinduak kitzikatuz hatsa, hatsa, hatsa hegaldaka abiatu zen.

Ur-bazterrak gogoratzen nituen, igitaien zifri-zafra zaluen menean plegatu ogi-ezpalak, errautsezko izerdiak, salda beroak, ardo-berri karatsak, gaztainak zartaka, meza-bideak, jauzteiak, erasiak, ongietorriak, orokorki bizitzaren bihurrikeria guzien onarpen samurrak.

Oroitza hain zuzen, *Ni Gu Naiz* molde bitxian harilkatzen hasi zen. *Gu gabe deus ez naiz* erantsi zuten negarra ukatzen zidaten begi harrituek. Deep North honetan jagoitik memoria zatekeen gidari xoil.

V

Una lunga paghjella dopo la morte di nostra madre
Frammento di Deep northern way 1994

La vita ostinata ha esalato il suo ultimo sospiro, quando il mio sogno ansante suscitato dalla paura si è aggrappato al tuo. Appena pronunciato un *io sono* impaurito l'eco del *io ero* mi ha schiacciato con la sua sofferenza. La parola stessa, nasceva lutto:

Riesci a sentirci mamma?

Ma l'infermiera disse:

Non può sentirci...

Improvvisamente, le gru hanno attraversato il cielo coperto da nubi. Rimestando le braci del fuoco del ricordo umido il respiro, il respiro, il respiro ha preso il volo.

Mi sono ricordata delle rive dei ruscelli, delle fascine di grano piegate dai colpi rapidi delle falci, dei sudori polverosi, delle zuppe calde, dei vini novelli aspri, dello scoppietto delle castagne, delle strade per la chiesa, delle scalette di legno tra i campi, delle liti, dei benvenuti e più in generale della tenera eccitazione di tutti i capricci della vita.

La memoria ha cominciato a tessere con precisione *io sono noi* in uno strano modo. I miei occhi pietrificati, che mi rifiutavano le lacrime, hanno aggiunto *senza noi io non sono niente*. D'ora in poi, in questo profondo nord, il ricordo sarà la mia unica guida.

VI.
OTSOZELAI*

Argia itzali da.
Harriak ferekatzen ditut.
 Ilunbeak ez du mugarik,
 Ez du sinesterik,
 Ez du trabarik,
Ez du edertasunaren eredurik.
Argia itzali da.
Begiak ditut eta itsu naiz.
Belarriak ditut eta elkor noa.
Bideak ditut eta pentsuaren
 Ohizko errepide
 Sarraskituetarik nabil.
Hitzak ditut eta mutu nago:
Zergatik ez dut erran sekula
 Nintzena nintzela?
Argia itzali da eta
Gau beltzaren gorputza
Laztanten dinat
 Hirea bailitzan.

VI
OTSOZELAI*
Appassionata dei destini di Neanderthal, 2004

La luce si è spenta.
Accarezzo le rocce.
 L'oscurità non ha confini,
 Né religioni,
 Né ostacoli,
Né canoni di bellezza.
La luce si è spenta.
Ho occhi e sono cieca.
Ho orecchie e non sento.
Ho sentieri e vado per
 Strade già battute,
 Massacrate dal pensiero.
Ho parole e sono muta:
Perchè non ho mai detto
 Chi ero?
La luce si è spenta e
Stringo il corpo della notte nera
 Come se fosse il tuo.

* Nome di una grotta visitabile vicino a dove vivo

VII

Egia baldin bada hil arte bizi behar dugula,
bizi gaitezen beraz:
bakardadearen urrakoa bihotzean zabalik,
dolorezko opari gisa haize hotzei
ahuspez eskainirik,
haragi puska utziak idor dakizkigun.
zergatik xuxen bizi garen sekula eskatu gabe,
bizi gaitezen beraz:
maitatzen edo maitatuak izaten
ez dakigula onar dezagun behin,
amets gaiztoak eta dudaren zurrunbiloak
burumuinak udalatzuz
leher daitezela
eta argi lehia minbera horretan
gaueko segundo bihikak oro
bakardadearen zedarri bekizkigu...
egia baldin bada hil arte bizi behar dugula.

VII

In profonda disperazione, 1997

Se è vero che dobbiamo vivere fino alla morte,
Viviamo dunque.
La lacerazione della solitudine aperta in pieno cuore,
 Regalo doloroso, offerto in dono
 Ai freddi venti, affinché
I pezzi di carne abbandonati possano essiccarsi.
Viviamo dunque
Senza mai chiedere perché veramente viviamo.
Ammettiamo una volta per tutte
 Che non sappiamo né amare né essere amati,
Che vadano in pezzi
Gli incubi e i tumulti del dubbio
Che solcano il cervello
 E che sia per noi,
In questa vulnerabile corsa verso la luce,
Ogni secondo notturno sgranato,
Un limite alla solitudine...
Se è vero che dobbiamo vivere fino alla morte.

VIII
TRANSBIZKAIA
TYA

Gauaren partea, zigarretak erretzen
Eta garagardoak edaten zurekin solasean
 Bihikatu ostean,
Goizon, lo eskasez kilikolo, Lekittora noia
 Bizkaibusez.

I'm going home.

Aharrausika, ur botoila bazterrean,
Bizkaibus honetan natza:

I'm going home.

Olerkigai baten lehen lerroa pausatzen dut.
Lagunarena noski, ez da nire etxea,
Arrotz nabila munduan

Bere besoetan bezain:

I'm going home.

Autobusean Euskadi Gaztea aditzen da,
Zutan daukat gogoa,

I'm going home diot

Bezperan Bilbon biok geniona, paperean
Brodatur, oldarro:

Inoiz ez da berandu

Ibiltzeko, zutitzeko, maitatzeko, ona izateko,
Nork bere egia aitortzeko, isiltzeko,
Bereizteko, pairatzeko, hiltzeko,

Baina badugu denbora.

VIII
TRANSBIZKAIA TYA

Nostalgia degli anni flower power
e del gruppo Ten Years After – Woodstock, 2007

Dopo aver passato gran parte della notte
A parlare, fumare sigarette
E bere birra con te,
Stamattina, spossata per la carenza di sonno,
Mi dirigo verso Lekeitio
nel Bizkaibus.

I'm going home.

Nel Bizkaibus, sbadiglio
Con una bottiglia d'acqua accanto:

I'm going home.

Butto giù la prima riga di una poesia.
La casa della mia compagna non è la mia,
certo, sono straniera

al mondo quanto tra le sue braccia:

I'm going home.

Sul bus si ascolta *Radio Euskadi Gaztea*,
Penso a te,

I'm going home dico

Ricamando sulla carta, con impeto,
Quel che dicevamo a Bilbao ieri:

Non è mai troppo tardi

Per camminare, alzarsi, amare, essere buoni,
Dire la propria verità, tacere,
Separarsi, soffrire, morire,

Ma abbiamo ancora tempo.

I'm going home diotsut,

Erabat ez hondatzeko hasperen batez

Don't be mine erantsiz.

Bizkaiblues.

I'm going home ti dico,
Aggiungendo un sospiro
Per non sprofondare totalmente
Don't be mine.
Bizkaiblues.

IX

Hango bortu-gainetarik
altxatzean hego hatsak
beldurraren zainetarik
airatzen dira urratsak
ez dakit erranen dudan
nolatan maite zaitudan

behar-grina bedi lerra
lo hiletik gau hotzera
zure so beltzen ederra
joan dakidan bihotzera
ez dakit erranen dudan
nolatan maite zaitudan

hauts eztiaren zaparta
hitz arruntaren kalaka
suak bultzatu du barda
mintzo ausarten balaka
ez dakit erranen dudan
nolatan maite zaitudan

lur hutsetik begiraino
amets hotsa dut ekarri
bihotz honen hegiraino
zazpi musuz bake jarri
ez dakit erranen dudan
nolatan maite zaitudan

IX

Ancora una poesia sentimentale,
Che ha tre versioni cantate, 1998

Quando il vento del sud
Si leva dall'alto delle montagne,
I passi si liberano
Dalla paura interiorizzata:
Non so se dirò
quanto ti amo.

La bisognosa inquietudine
Scivola dal nostro sonno alla notte fredda
Perchè la bellezza dei tuoi neri sguardi
Arrivi fino al fondo del mio cuore:
Non so se dirò
Quanto ti amo.

Lo scricchiolio dolce della cenere,
Il chiacchericcio delle parole di sempre,
Il fuoco ieri sera ha eccitato
La carezza di parole temerarie:
Non so se dirò
Quanto ti amo.

Ho portato il suono del sogno
Di terre vuote fino agli occhi,
Posato la pace all'estremità
Del cuore in sette baci:
Non so se dirò
Quanto ti amo.

X

Gure erroez, gure eleez, gure jendeez
sasi-bekaizki mintzatzen dira
folklore solasa irriz erabiliz, gureganako
apaleste ageria gordetzen saiatuz.

gure erroak lurretik bortxaz bereizten
dituzte, bideak eta hodiak zilatzean
haranen sardeskatzeko balio duten
katerpillar horail erraldoiek,

gure eleak hiztegi marduletan
giltzarrapoz hersten dizkigute,
itotzen, ahanzten, herdoiltzera uzten
ezpainetara jauki ez dakizkigun,

gure jendeak beren haurrak
ez onartzerainoko ahalgeaz hazi ondoan
repose en paix lasterra marmarikatuz
hilerri hotzetan ehortzirik dauzkate.

eta errorik, eta elerik, eta jenderik
gabeko itzalkiak bilakatu gaituzte.

X

Un poeta del «mio» popolo, 1996

Parlano, con un pizzico di gelosia,
Delle nostre genti, delle nostre parole, delle nostre
radici,
Usando il termine folklore, ridendo mentre cercano
Di occultare il loro disprezzo mentre ci guardano.

Le nostre radici, le strappano violentemente
Dalla terra, per tracciare strade
E gasdotti con dei caterpillar
Giganti e gialli,
Le nostre parole, le imprigionano
In voluminosi dizionari
Le annegano, le dimenticano, le lasciano arrugginire
Perchè non possano più salirci alle labbra,
Il nostro popolo, dopo averlo educato
Fino all'odio dei propri stessi figli,
Viene seppellito in fondo a freddi cimiteri
Mormorando un frettoloso *riposa in pace*.

E hanno fatto di noi delle ombre
Senza radici, senza parole, senza popolo.

XI

Jagoitik basamortu horailak ditut desiratzen,
itsasertz biluziak,
karrika hutsak,
eguzki hobengabeak kixkaili larruak,
irri partekatuak noiztenka
eta denbora.

elearen lainoa plazaren erditik
kezkaren sosegu agurka
hegaldatzen denean
azkorriko zero ubelegiek biltzen naute
eta denborak.

lerratzen diren so auherrak
ditut maite eta denboraren
bihozkada hunkituak:
ezer ez has, ez pentsa, ez erabaki,
ez mintza amodioaren aitortzeko ez bada,
utz bizitzaren hautsak herioaren itsutzerara
eta ibili

denboran bezala
kanta baten hatzetarik oinik dukedano.

XI

Con voglia di partire, di lentezza, di profondità, 1996

Da questo momento, desidero i deserti color ocra,
le rive di mari spogli,
le strade vuote,
le epidermidi bruciate da un sole innocente,
le risate a volte condivise
E il tempo.
Sono avvinta dall'intenso viola dei cieli al mattino
Quando la dolcezza della parola sfugge
Al centro della piazza,
In cerca di scampo
Per calmare l'inquietudine,
E il tempo.

Amo gli sguardi pigri che scivolano
E i battiti commossi del cuore
Del tempo:
Non iniziare niente, non pensare, non decidere,
Non parlare, se non per confessare l'amore,
Lasciare che la cenere della vita accechi la morte
E andare avanti
Come una volta
Seguendo un canto, finché ho la forza di camminare.

XII PACEM IN LAPURDUM

gaztelu zahar blues.
ahoak oihal trikolorez tapaturik.
hiri aberatseko karriketan barna.
larunbat arratsaldez.
 beti eskatzen.
 beti kolpeak biltzen.
urdin beltzez jantzirik dabilzan
orden zaintzale armatuak,
 gaz negar ekarleak
 erromesak gu gara.
xuri garrailez apaindu burgesen
komentario zorrotz zuzenak,
 hau ez da Libania
 hots demokratika.
gorriegi ixurtzen da matrakaz
jo kidearen kopetatik odola.
 giza eskubideak.
 Soweton menturaz.
pasatzen dira manifestalariak.
gaztelu zahar plazako ehun eroak.
banderola higituen gibelean.
larunbat arratsaldez.
 beti eskatzen:
 kanporatzerik ez!
 beti eskatzen:
 presoak etxera!
 beti kolpeak biltzen.

XII
PACEM IN LAPURDUM

A Baiona-Lapurдум come a Bastia, 1985

Blues del Château Vieux.
Bocche imbavagliate da drappi tricolore.
Per le strade della ricca città.
Il sabato pomeriggio.
 Sempre a rivendicare.
 Sempre a farsi malmenare.
Le forze dell'ordine, armate,
Che marciano vestite di blu scuro,
 Gas lacrimogeni,
 I reietti, siamo noi.
I commenti diretti, affilati,
Dei borghesi ornati del bianco della vittoria,
 Questo non è il Libano,
 Voci democratiche.
Il sangue che cola dalla fronte del compagno
Massacrato è troppo rosso.
 I diritti umani.
 A Soweto forse.
I manifestanti passano.
I cento matti della piazza di Château Vieux.
Dietro bandiere usate.
Il sabato pomeriggio.
 Sempre a rivendicare:
 No all'estradizione!
 Sempre a rivendicare:
 Liberate i prigionieri!

zubi gainean korrika.
lurrean eroriak batzuk
ba ahal dago medikurik?
detenituak barreiatuak hatsantuak.
poliziek gero
clauswitzengoren gerla taktikak segituz
ghettoa inguratzen dute.
frantses bandera haizean.
Pacem in lapurdum.

Sempre a farsi malmenare.
Correndo sul ponte.
Alcuni cadono a terra
 C'è un dottore?
Degli arrestati dei dispersi degli affannati.
I poliziotti alle calcagna
Che seguono le tattiche di guerra di Clausewitz
serrando il ghetto.
La bandiera francese sventola al vento.
Pacem in Lapurdum.

XIII

La porta oberta en el cel, i això

I

herri hau aipatzen diguten aldi oroz
elizetako
barne mukuru beteak erakusten dizkigute,
emazteek beherean
«zuk kentzen duzu munduko bekatua»
eta gizonak galerietan
«urrikal jauna»
kantatzen dutela.
«emaguzu bakea» deiadarkatze
bakoitzean irri bat hiltzen da
hemengo jendeen ezpainetan.

II

requiem dio haizeak.
udako lantzurda maltzurrik
eskaintzen ez duten
lurrak ez zaizkit gustatzen.
nere azken egoitza ankerra
josiko duketen
xurxuriak laztantzen ditut.
requiem dio haizeak.

XIII
La porta oberta en el cel, i això

Un poeta del «mio» popolo (ter)
Transfrontaliera, dopo Barcellona, 1987

I.

Quando parlano del nostro paese,
mostrano
gli interni gremiti delle chiese,
quando le donne in basso
cantano
«Tu che togli i peccati del mondo»
E gli uomini in galleria rispondono
«Abbi pietà di noi»
A ogni «dona a noi la pace»
Una risata muore sulle labbra
Degli abitanti di questo paese.

II.

Requiem dice il vento.
Non mi piacciono le terre
Che non offrono
Rovesci di estati ingannevoli.

Abbraccio i pioppi
Con cui costruiranno
La mia ultima crudele dimora.
Requiem dice il vento.

III

arrosaren gorria
minberago da
gauetz egunez baino

euriaaren beldurra
bustiago da
gauetz egunez baino

haragiaren ikara
zehatzago da
gauetz egunez baino

haserrearen hatsa
erreago da
egunez gauetz baino

IV

estatistika ofizialen arabera
euskal herri barnean
bizidun haina ardi gehiago dago
horregatik
gasna
urre xuria da.

eta nik gasna ez dut maite.

estatistika klandestinoen arabera
euskal herrian
ardi haina polizi gehiago dago

III.

Il rossore della rosa
E più sensibile
Di notte che di giorno

La paura della pioggia
È più umida di notte che di giorno
Il brivido della carne
È più netto
Di notte che di giorno

Il soffio della collera
Brucia più
Di giorno che di notte

IV.

Secondo fonti ufficiali
Nel Paese basco dell'interno
Ci sono più pecore che abitanti
È per questo
Che il formaggio
È considerato l'oro bianco.

E a me il formaggio non piace.

horregatik
bakea
segurtatua da.

eta nik bakea ez dut maite.

V

ingurukoen aho arras zorionsuetan
neronen bakartasunaren eremu
desolatua
izar dezaket

no woman's land erraldoia

VI

mugaz bestaldean dago
bizitzeko estakuru ahularen marka
mugaz bestaldean dago
etsitzeko arrazoin azkarren bidea
mugaz bestaldean dago
ebatsi nizun musuaren oroitzapena

mugaz bestaldean dago
dena
eta deusik eztago

Secondo fonti non ufficiali
Nel Paese Basco
Ci sono più poliziotti che pecore
È per questo
Che la pace
È assicurata.

E a me la pace non piace.

V.

Posso misurare
Lo spazio desolato della mia solitudine
Sulle bocche pienamente soddisfatte
Di chi mi circonda

Un gigante No woman's land.

VI.

Dall'altro lato della frontiera
Ci sono segni di una flebile voglia di vivere
Dall'altro lato della frontiera
C'è la strada verso le ragioni più forti per disperare
Dall'altra lato della frontiera
C'è il ricordo del bacio che ti ho rubato

Dall'altra lato della frontiera
C'è tutto
E non c'è niente.

VII

gauero
hiri berdina
amets dagit.
gauero
zure itzalari
loturik
kexu trakesak
eztitzen ditut.
gauero
metroko arroiletan
kantu zaharren gisara
maite zaitudala
errepikatzen dizut.
eta
zuk
gauero
kaioletan salgai dauden
txori exotikoen
ikustera naramazu
erranez:
 begira zer
 ez dugun
 bilakatu behar.

VII.

Ogni notte
sogno
della stessa città.
ogni notte
aggrappata alla tua ombra
addolcisco
la mia rabbia maldestra.
Ogni notte
Nei sottopassaggi della metropolitana
Ti ripeto
Che ti amo.
E
Tu
Ogni notte
Mi porti a vedere
Gli uccelli esotici*
Prigionieri nelle loro gabbie
dicendo:
 guarda
 quello che noi
 non dobbiamo diventare.

*Ramblas, Barcellona

XIV FRUSTRAZIOAREN ALABAK

frustrazioaren eta kulpabilitatearen alabak gara
udazken lehorretako lehen lanbroak
ez dizkigu
maitasun beharraren desir astunak
laztanduko.
bihotz kraskatueta haragi puska hormatuak
ezaren geltoki desolatuetan
ez ditugu nehoiz
beso artean
tinkatuko.
hor dago muga:
nola joan urrunago?
azken jujamenduaren orduan
zor guziak ordainduko ditugu
larru sukratuak ezpainez milikatu nahiak
eta
sufrantzaren ate ilunak bortxatzeko gutiziak,
zor guziak ordainduko ditugu
frustrazioaren eta kulpabilitatearen alabak garenok!

XIV
FRUSTRAZIOAREN ALABAK

Figlie della frustrazione,
Contesto machista basco, 1985

Siamo figlie della frustrazione e del senso di colpa.
La prima rugiada degli autunni aridi
Non addolcirà
Questi grevi desideri d'amore.
Mai terremo
Tra le braccia,
Nelle stazioni desolate del nulla,
I pezzi di carne ghiacciata dei cuori infranti.
La frontiera è là:
Come andare oltre?
Al momento del giudizio universale
Pagheremo tutti i debiti
L'aver voluto leccare con le nostre labbra la pelle
zuccherata
E
La voglia di forzare le nere porte della sofferenza
Pagheremo tutti i debiti noi, che
Siamo figlie della frustrazione e del senso di colpa.

XV
STABAT MARE DOLOROSA

Ama hilen hobietan
Ereintoz abar usantsu bat pausatzen dugunean,
Denak hor dira:

Medea, Elektra, Kazandra eta oraindik
Artizar distiratsu dabilan Oum Kalzoum,
Colomba eta Angelika Katariou,
Beraien ahots sakonez,

Negar eta auhen hegian beti,
Bakarmin odoltsuen urraokoak gozatzen,
Hor dira denak.

Uhin eztiak, bazterrez bazter,
Doluaren gramatikak oihartzen ditu.

Itsasoa haserretzen da *libacciu*

Edo *meltem* haizeek buhatzen dutenean
Zaurien ezpondak idortzeko:

Neurea al da, mare nostrumaren erdian,
Noraez doan belarik gabeko
Ontzi herbal hori?

Ithakako gazteluaren horma

Mizeniarren maldan

Edo Vizzavonako lepoko lainoan
Entzutea uste dudan polifoniaren

Arduraduna ote naiz?

Rapsoda eme mutuarazien

Paghjella edo voceratu melodietan
Biltzen naiz, Bastiako antzokian:

Terra Mea xuxurla dezaket nik ere

Maroka, Aljeria, Tunizia, Libia,
Egiptoa, Gaza Banda, Israel, Liban,

XV
STABAT MARE DOLOROSA

Quando deponiamo
Un ramo odoroso di oleandro
Sulle tombe delle nostre madri defunte,
Loro sono tutte là:
Medea, Elettra, Cassandra, Oum Kalzoum
Ancora brillanti come la stella del pastore,
Colomba e Angelica Katariou,
Ad addolcire con le loro voci profonde
Sempre al limite del gemito e del lamento,
Le lacerazioni sanguinanti del male della solitudine,
Loro sono tutte là.

La tenera onda, di riva in riva,
Fa risuonare le grammatiche del lutto.
Il mare gronda quando i venti di
Libeccio o *meltem* soffiano
Per seccare le sponde dei mali:
E' il mio questo battello fiacco
Senza vele che va alla deriva
In pieno mare nostrum ?
Sono responsabile
Della polifonia che credo di sentire
Nella nebbia del colle di Vizzavona
O in fondo ai muri micenei
Del castello d'Itaca?

Al teatro di Bastia
Mi concentro su melodie di paghjella
O sui voceri di rapsodi femminili
Rese mute:
Come le donne dell'Andalusia,

Turkia, Albania, Grezia, Italia,
Sardinia, Kortsika, Okzitania,
Katalunia edo Andaluziako
Emakumeen antzera.

Beltzez beztu dabiltzan andreak,
Semeak betirako gartzelaratzen dizkietela
Debekaturiko inozentzia-susmoaren izenean,
Zapiak buruan dabiltzan andreak,
Gizonek molde bekaitzean interpretatu
Fede-bide totalitarioen izenean,
Besoak gurutze dabiltzan andreak,
Alabak atzerrietako arrazismoa pairatzera
Ihes joaten zaizkienean, nehon aurkitzen
Ez den ongizatearen izenean,
Begiak apalik dabiltzan andreak,
Irrifar xumeak ezpainetan,
Eguzkiaren azpiko deboila

Negu hotza sufritzen duten herrietakoa
Baino askoz jasangarriagoa omen delako.

Lagundu nazazu Ariana,
Naxostik
Abandonuaren zigilua ekariezadazu,
Ikasi baitut engoitik,
Norbera bere utzikeriaz jabetzen denean,
Hautsetan bermatzen dela
Zintzoki bizirauten ausartzeko oina,
Eta lagundu itzazu halaber mediterranean
Lurretako emazteak,
Semeak mendekuan haz ez ditzaten,
Alabak amodioaren zurunbiloan
Libre hegaldan daitezten,

Della Catalogna, dell'Occitania,
Della Corsica, della Sardegna, dell'Italia, Della Grecia,
Dell'Albania, della Turchia, del Libano, di Israele,
Della striscia di Gaza, dell'Egitto, della Libia,
Della Tunisia, dell'Algeria o del Marocco,
Posso anch'io sussurrare *Terra Mea*.

Donne vestite di nero,
Quando i loro figli sono condannati all'ergastolo
Per una presunzione d'innocenza negata,

Donne velate,
In nome di religioni totalitarie interpretate
Egoisticamente dagli uomini,

Donne che incrociano le braccia,
Quando le figlie scappano verso il razzismo
Di paesi stranieri, in nome di un conforto
Che non si trova in nessun luogo,

Donne con gli occhi bassi,
Sorrisi fragili sulle labbra,
Perchè sembra che la sconfitta
Sotto il sole sia più sopportabile di quella
Delle nazioni che soffrono per gli inverni freddi.

Aiutami Arianna,
Porgimi il sigillo dell'abbandono
Da Naxos,
Perchè ho finalmente imparato
Che per osare vivere con sincerità,
quando si prende coscienza di questo
abbandono, si poggia il passo sulla cenere.
Aiuta anche le donne

Delle terre del mediterraneo,
A non educare le figlie nella vendetta,
Perchè possano scappare

Penelopa edo Sheherazade bihurtzeko
 Ametsari uko egin ez dezaten,
Lagundu itzazu jagoitik mediterranean
Lurretako ene andregai
 Erreak, mutilatuak, baztertuak,
 Kondenatuak, arrestatuak,
 Ahalketuak,
 Zorabiatuak azkenean
Ehun mila olibatzez landaturiko
Delphes zolako ibarretik,
Aitzinako abesti bat
 Zohar altxatzean,
Eta Golghota iragarriaren kalbarien pean,
Dantzan hasten dira mediterranean
Leihorretako ene andregaiak,
 Ihardokiaren *zirtaki* eroak
 Xendra erakusten dietela.
 Stabat mater nostrum:
 Djurdjura Kabiliako mendietarik
Jaisten da,
Ilham ederra da Baionako
Bestetan, mila eta bat gauetako
 Soinuetan arin,
Hoda Hussein Alexandriako espaloietan
Askatasun pertsonala aldarrikatuz,
Kleopatra markako zigarreta
 Ahoan lerratzen da,
 Exilio bezperan, Beyruten,
Maram Al-Masrik
Bera bezalako emazteen eresia
Paperean etzaten du,
 Oslam Kumrularek

Verso il cuore della tormenta dell'amore,
Che non rinneghino i loro sogni
Di diventare Penelope o Sheherazade,
Aiuta da questo momento le mie amanti
Delle terre del mediterraneo,
bruciate, mutilate, escluse
condannate, incarcerate,
coperte dall'onta,
finalmente meravigliate
quando un canto antico si innalza
dalla valle coltivata ad olivi, centomila,
Ai piedi di Delfi,
E le mie amanti delle sponde mediterranee
Iniziano a danzare ai piedi dei calvari
Dell'annunciato golgota,
Mentre un folle sirtaki
Gli mostra la via.

Stabat mare nostrum.

Djurdjura scende dalle montagne
Di Cabilia,
Ilham è bella durante le feste di Baiona,
Leggera sul ritmo di una musica
Da mille e una notte,
Hoda Hussein scivola,
Una sigaretta Cleopatra sulle labbra,
Sui marciapiedi di Alessandria
Rivendicando la propria libertà,
Alla vigilia dell'esilio, a Beirut,
Maram Al-Masri
Adagia sulla carta l'elegia
Di donne come lei,

Istanbulen
Europako Zubia egun oroz
Zeharkatzen du,
Patrizia Gattaceca
Preso datxikate
Colonna aterbetzea
 Akusatua
Eta Sarah Zanghi Felliniren hatzetan
Galtzen da Graviscaren bila
 Rimini hirian barna.
Bizkitartean *Terra Mea* xuxurla
 Dezaket nik ere,
Atlantika gazi eta salbaiko haur izanagatik:
Patmoseko ilunbe ikaratian,
 Zuek ene andregaiak, ene ahizpak
 Gogoan zaituztet,
 Ene adihitzkideak,
 Ene uharteak,
 Ez baitut ahanzten
 Argolidako eukaliptoen itzalean
Orbaindu zitzaizkidala aspaldiko sarraskiak
Zuen hitzei, zuen bozkario lumei, zuen desirei,
 Zuen kuraiari, zuen ilusioei
 Esker.
 Ezkerreko bihotzez:
 Stabat mare dolorosa

Oslam Kumrular
Attraversa ogni giorno
Il ponte dell'Europa
A Istanbul,
 Incarcerano
Patrizia Gattaceca,
Accusata di aver ospitato
 Yvan Colonna,
E Sarah Zanghì si perde sulle tracce
Di Fellini, cercando la Gravisca,
 Nella città di Rimini.
In questo momento posso anch'io,
Figlia dell'atlantico salato e selvaggio,
 sussurrare *Terra Mea*:
nella tremula oscurità di Patmos
 vi tengo nella memoria, voi
Mie amanti, mie sorelle,
 mie compagne di parole,
 mie isole,
 Perché non dimentico
Che all'ombra degli eucalipti dell'Argolide,
Le mie antiche ferite si sono rimarginate,
 grazie
alle vostre parole, alle vostre gioiose penne, ai vostri
desideri,
Al vostro coraggio, alle vostre illusioni.
 Dal mio cuore di sinistra:
 Stabat mare dolorosa.

ESKERRAK

GRAZIE

*Grafica: Claudia L.P.
Traduzioni: Viviana T.
Scritti in Euskara: Itxaro B.
Presenza artistica: Isabelle F.*

e anche...

eta ere...

*Associazione Culturale Euskara
Dipartimento di Lingua e Cultura Basca dell'Upter*

*ERROMAKO HIRIA
LA CITTA' DI ROMA*

www.euskara.it